

Bekotxe, Manzarraga, Ontone, Rekotxe, Salbide




3.27

Errekotxeko Juana Rosa Reka gorri Goti (1892-V-7an jaio eta 1966-X-16 hil) eta Salbideko Pedro San Anton Bustinza (1891-I-31n jaio eta gerra zibilean hil). Nikasio Damaso San Anton (1862ean jaioa) eta Dimako Josefa Bustinzaren seme izan zan Pedro. Juana Rosa Bizente Reka gorri eta Maria Gotirena. Pedro eta Juana Rosa ezkondu eta sei seme-alaba izan ebezan: Juanita, Felisa, Pedro, Petra, Rosalina eta Bizente. Juanitak erriko tabernea euki eban urteatan.



3.28

Zeanuriko Eduarda Bilbao eta Salbideko Frukto San Anton Bustinza 1929 aldera ezkondu eta hiru seme-alaba izan ebezan: Daniel, Juliana eta Pedro. Frukto 1991-VII-20an hil zan 87 urteko zala; Eduarda 1988-VII-11n, 82 urte ebazala. Argazkia ezkontzako da.



3.29

Ziarrustako Maria Goti eta Errekotxeko Bizente Rekagorri. Ezkondu eta seme-alaba bi izan ebezan: Antonio eta Juana Rosa. Argazkia behin barraketara joan eta han eginekoa da (1920 aldera).

Zoritxarreko 1929 batean joan jakuzan Maria eta Bizente. Maria kanporamartxo egunean (pulmonia batek jota), bere senar Bizente hurrengo domekan, etxeramartxo egunean. Bizentek 88 urte ebazan orduan; Maria gazteagoa zan.



3.30

Errekotzeko Antonio Rezagorri Goti (1893-X-15ean jaio eta 1979-XI-22an hil zan 86 urteko zala) eta Lemoako Azurrekako Maria Ureta Lekue (1899an jaio eta 1987-III-7an hil). 1918.ean ezkondu eta zazpi seme-alaba izan ebezan: Kandida, Eusebio, Pedro Antonio, Kristina, Antonio, Serafin eta Rafael. Argazkian, Antonio soldadutza garaian (1912 inguru) eta Maria gaztetan (1917 inguru).



3.31

Berdolatzeko Jose Bilbao Aizpuru (*Jose Bekotxe*), 1891an jaio eta 1957-X-31an hil zana, eta Zeberioako Maria Manuela Sagarminaga Ibarondo, 1888an jaio eta 1968-II-5ean hil zana. 1916 aldera ezkondu jakuzan. M.^a Manuelan ama Karean bizi zan eta hara ezkondu zirean. Euren oinordekorik zaharrena, Matias, han jaioa da. Gero Bekotxera etorri zirean eta gainontzeko seme-alabak (Anastasia, Modesta, Marzelino eta Klaudio) Bekotxen jaioak dira. Jose Bekotxen hil zan; ama, Modestanera Areatzara joan eta han emon ebazan bere azken urteak.



3.32

Olarragoitiko Juli Bernaola Elexpe eta Zeanuriko Undurragako Felix Gorostiaga Gortazar. 1942. urtean ezkondu eta hamaika seme-alaba izan ebezan: Begoña, Isabel, M.^a Dolores, Santiago (bederatzi hilabetegaz hil zana), Tere, Txaro, Jose Inazio (urte bigaz hil zana), Nati, Dorita, jaiotzean hil zan bat eta Juan Mari. Felix 1903-VIII-6an jaio eta 65 urte beranduago hil zan, egun berean. Juli 1922-III-16an jaioa dogu.



3.33

Larrabetzuko Faustina Duñabeitia Zorrozu (1893an jaio eta 1978-XII-21ean hil) eta Artaungo Gregorio Barrenetxea Sagarna (1889an jaio eta 1968-VIII-26an hil). Ezkondu eta Ontonera etorri zirean, berta ugaltu eta hamabi seme-alaba izan ebezala: Juan, Antonio, Karmelo, Angeles, Jose, Antolin, Antonia, Puri, Zakarias, Begoña, Gregorio eta Julian.



3.34

Bediako Saturnina Agirre Yalo eta Iber-goikoako Bizente Manzarraga Yurrebaso (1875-I-22an jaio eta 1954-II-27an hil zana). 1902 aldera ezkondu eta bost seme-alaba izan ebezan: Daniel, Paula, Rafaela (Arantzazuko Jose Iturrinogaz ezkonduko dana), Agustin eta Mari. Euren seme zaharrak, Danielek (1903an jaio eta 1985-IX-29an hil), jarraitu eban Iber-goikoan, Egireungo Segunda Aldape Imazegaz ezkondu eta hiru seme-alaba izan ebezala: Antonio (1955-X-4an, 7 urteko zala hil zana), Esther eta Iñaki.